



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 20a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Erripagañako osasun etxeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (3. or.).
- Galdera, sozietateen, ondarearen eta oinordetzen gaineko zergak igotzeko erreforma fiskalari buruzkoa. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- Galdera, hezkuntza eleanitza indartze eta hobetze aldera Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen neurriei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek ukitutako langileei pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzea errazteko neurriei buruzkoa. Ainhua Unzu Gárate andreak egin du (5. or.).
- Galdera, EITB3 Nafarroa osoan ikusi ahal izateko neurriei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- Galdera, turismo, ostalaritza, gaueko aisialdi, handizkako merkataritza eta kongresuen sektoreentzako laguntzen deialdiari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuarekin Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Foruzainen martxoko nominen kalkulari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Osasuneko zuzendari nagusiak Diario de Navarran 2021eko apirilaren 4an esandakoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategiari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Osasun Karpeta Pertsonalari eta Nafarroan telemedikuntza ezartzeari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, pentsio planen arloan zerga-autonomia aldeztuari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (10. or.).
- Galdera, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko legerari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, COVID-19aren aurka txertatzeko hitzorduak SMS bidez emateari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Next Generation UE funtsei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (12. or.).
- Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Kontuen Ganberak eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek egindako txostenei buruzkoa, pandemiaren ingurukoa bata eta gardentasun fiskalaren gainekoa bestea. Ramón alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, oinarrizko osasun laguntzako langile-beharrizanak konpontze aldera harturiko neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planari eta I+G+b arloko aholku kontseiluari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (14. or.).
- Galdera, alarma egoera maiatzaren 9an bukatu ostean hartuko diren neurriei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, euskarazko zerbitzu telematikoei buruzkoa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko-ko eta Barneko Batzordean izapidetzea (16. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 114 sendagile-lanposturen deialdiei buruzkoa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Erripagañako osasun etxeari buruzkoa.*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Erripagañako osasun etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zertan da Erripagañako osasun etxearen proiektua eta zeintzuk dira horren etorkizuneko garapenerako planak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, sozietateen, ondarearen eta oinordetzen gaineko zergak igotzeko erreforma fiskalari buruzkoa.*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, sozietateen, ondarearen eta oinordetzen gaineko zergak igotzeko erreforma fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero foru parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuako Ogasuneko ministro María Jesús Monterok adituen batzorde bat sortzea onetsi zuen iragan astelehenean –apirilaren 12an–, sistema XXI. mendeko erronkei egokitzeko erreforma fiskal baterako proposamen bat taxutu dezan.

Batzordearen proposamenak lehenetasuna eman behar die sozietateen, ondarearen eta oinordetzen zergak igotzeari, ingurumen-fiskalitate bat garatu bidenabar.

Batzordeak hamar hilabeteko epea dauka bere txostena aurkezteko, baina ministroak adierazi duenez, Gobernuak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak aurreratzen ahalko ditu heldu den urteko aurrekontu orokorrak onesten direnean.

Sozietateen edo ondarearen gaineko zergak igotzeari lehentasuna ematen zaio, hain zuzen ere, zerga horien bidezko diru-bilketaren eta PFE-Zetik eta BEZetik heldu denaren arteko desoreka kezkarria, egiturazkoa eta gero eta handiagoa delako.

Nafarroan, desoreka hori estatuan gertatzen denaren oso antzekoa da.

Azken 20 urteotan zerga ezberdinen diru-bilketak bilakaera larria izan du Nafarroan, desoreka gogorra sortzeraino, lan-errenten kalterako eta enpresa-etekinaren mesede oso handirako.

PFEZaren diru-bilketa igaro da 2000n diru-sarrera publiko guztien % 29,7 izatetik 2020an % 42,4 izatera. Sozietateen gaineko zergaren diru-bilketa, berriz, 2000n guztizkoaren % 13,4 izatetik igaro da 2020an bakarrik % 7,2 izatera.

Hogei urte horietan, PFEZagatiko diru-bilketa 2000ko 629,6 milioietatik 2020ko 1.527,8 milioietara igo da. Alabaina, Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketa, ez igo ez ezik, are jaitsi ere egin zen, 2000ko 285 milioietatik 2020ko 260,3 milioietara.

Diru-bilketa fiskalari PFEZaren bidetik eginiko ekarpenaren (gehiena, lan errentak) eta Sozietateen gaineko Zergaren bidetik (enpresa-etekinak) egindakoaren arteko desoreka gero eta handiagoa, bere horretantxe, bidegabekeria fiskal agerikerikoa da.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Espainiako Gobernuak iragarri ostean sozietateen, ondarearen eta oinordetzen gaineko zergak igotzeko erreforma fiskal baterako proposamen bat taxutuko duela, Nafarroako Gobernuak beste horrenbeste egingen du?

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, hezkuntza eleanitza indartze eta hobetze aldera Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen neurriei buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntza eleanitza indartze eta hobetze aldera Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitatean ehundik gora ikastetxe dago PAI-ingelesaz ikasteko programan sartuta.

Guztira, 32.844 ikasle ari dira ikasketa horiek egiten, bai A eta G eruedetan, bai B eta D eruedetan ere, bai eskola publikoan, bai itunpekoan ere. Hortaz, ikus daitekeenez, programa hori erabat garrantzitsua da gure erkidegoan.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu ingelesaren ezagutzari dagokionez PAIk nafar ikasleei ematen dien hezkuntza eleanitzuna indartzeko eta hobetzeko? zer balorazio egiten du PAI programa daukaten ikastetxeen sarean egiten den lanaz?

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek ukitutako langileei pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzea errazteko neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek ukitutako langileei pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzea errazteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, hainbat sektoretako langile ukitu dituzte aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek. 2020ko ekitaldiko errenta-aitorpenaren kanpaina hasi den honetan, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarri du aurtengo kanpainan, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek ukitutako langileei erraztearren pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzea?

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, EITB3 Nafarroa osoan ikusi ahal izateko neurriei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, EITB3 Nafarroa osoan ikusi ahal izateko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak, Legebiltzarraren araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran, Javier

Remírez Apesteguía jaunak, Lehen lehendakariordea eta Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne kontseilariak erantzun dezan.

2020ko ekainaren 10ean, Nafarroa Susperu Planari ekarpena egiteko asmoz, Nafarroako Parlamentuko taldeok arloz arlokako eztabaidari ekin genion eta horren ondorioz hainbat ebazpen proposamen onartu genituen. Onartutako ebazpenen artean, horietako batek honela zioen:

“Nafarroako Parlamentuak administrazio publiko eskudunei (Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua) eskatu die urrats egokiak egin ditzatela ETB3ren atzematea errazteko Nafarroako lurralde osoan”

Zer urrats egin du Nafarroako Gobernuak eta zertan dago ebazpen honen betetzea?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero foru parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Apirilaren 8an eta 9an, Mayumana talde israel-darrak ikuskizuna eman zuen Navarra Arena pabilioian.

Talde hori Nafarroako hiriburuan egon den aurreko aldetan bezala, BDS-Boikota, Desinbertsioa eta Zehazpenak kanpainako zenbait ekin-tzaile pabilioiaren inguruetara hurbildu ziren, taldearen izaera sionista salatzeke.

Ikuskizunaren kariaz, Foruzaingoak Navarra Arena osoa inguratzen zuen polizia-dispositibo bat hedatu zuen. Foruzain batek bertan zeuden ekintzaileei adierazi zien alde batetik pandemia

dela-eta zegoela han polizia, eta beste alde bate-tik, Mayumanaren bira “terrorismoaren aurkako 4. maila”ko arriskukoa deklaratu zelako Europan, ekintza jihadistak gertatzeko aukeragatik.

BDSko kideek “Palestina askatu! Israeli Boi-kot!” zioen pankarta zabaldu zutenean, Foruzain-goak ekintzaileak identifikatzeari ekin zion, eta sarreretatik urrun zegoen bazter batera eraman zituen. Gero, Palestinako herriarekiko elkartasun-eranskailuak banatu zituztenean, eranskailuak banatzen ari zirenak identifikatzeaz gain, eranskailuak jaso zituzten zenbait pertsonari ere exigitu zieten identifika zitezen, jendearen harridurarako. Orobat adierazi zieten debekatuta zegoela pabilioira eranskailuekin sartzea.

BDSren estrategia, beste behin ere, ekintza baketsuak egitean oinarritu zen. Informatzea eta

salatzea bilatzen zuen ekintza baten aurrean, poli-zia modu larderiatsu eta neurritz kanpokoan hurbil-du zen ekintzaileak identifikatzera.

Mayumana kulturen arteko talde apolitikotzat dauka bere burua, baina beste artista batzuk bezalaxe, Israelgo Estatuaren politika genozidare-kiko konplizitate erabatekoa erakusten du.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak zer balorazio egiten du adierazitako gertakariak eta poliziaren jokabide hori direla-eta?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, turismo, ostalaritza, gaueko aisialdi, handizkako merkataritza eta kongresuen sektoreentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galde-ra, turismo, ostalaritza, gaueko aisialdi, handizka-ko merkataritza eta kongresuen sektoreentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, hona-ko galdera hau aurkeztu du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko martxoan argitara eman zen turismo, ostalaritza, gaueko aisialdi, handizkako merkataritza eta kongresuen sektoreentzako laguntzen deialdia, COVID-19ak eragindako kalte ekonomi-koak konpentsatzeko. Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du deialdi hori dela-eta?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Espainiako Gobernuarekin Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuarekin Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dabil Espainiako Gobernuarekin Hitzarmen Ekonomikoa negoziatzeko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Foruzainen martxoko nominen kalkuluari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Foruzainen martxoko nominen kalkuluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer formula juridiko erabili du foruzainen iragan martxoko nominak kalkulatzeko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Osasuneko zuzendari nagusiak Diario de Navarran 2021eko apirilaren 4an esandakoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasuneko zuzendari nagusiak Diario de Navarran 2021eko apirilaren 4an esandakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak lehendakaria bat al dator Osasuneko zuzendari nagusiak Diario de Navarran 2021eko apirilaren 4an argitaratu zen elkarrizketan adierazitakoarekin?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategiari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan astean, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujok suspertzerako espezializazio adimendunari buruzko topaketa batean parte hartu zuen Berrikuntza, Ikerkuntza, Kultura, Hezkuntza eta Gazteriarako Europako komisario Mariya Gabrieleekin, Europako Erregioen Batzordeko lehendakari Apostolos Tzitzikostasekin eta lehendakariorde Markku Markkularekin.

Topaketa horren helburua zen espezializazio adimendunaren garrantziari buruzko azterketan sakontzea, suspertze ekonomiko eta sozialerako antolakuntza-printzipio gisa, bai eta espezializazio adimenduneko estrategiek kohesio-politikan nahiz erregioen garapenean duten zereginean eta epe luzeko eraldaketa ekonomikoan ere.

Topaketan, halaber, parte hartu zuten erregioek –besteak beste, gureak– gertaera garrantzitsuen konparaziozko balorazio bat egin zuten.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu gure erkidegoaren datuei buruz? Zure departamentuak zer neurri hartuko ditu gaur egungo egoera hobetzen jarraitzeko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, Osasun Karpeta Pertsonalari eta Nafarroan telemedikuntza ezartzeari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Karpeta Pertsonalari eta Nafarroan telemedikuntza ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-garaian tresna digitalak areagotu eta normalizatu direla ikusita,

Zer eragin izaten ari da Osasun Karpeta Pertsonalean eta Nafarroan telemedikuntza ezartzeari begira?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, pentsio planen arloan zerga-autonomia aldezteari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, pentsio planen arloan zerga-autonomia aldezteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak oraintsu agindu dio Nafarroako Gobernuari pentsio planen arloan

zerga-autonomia aldeztu dezan. Nafarroako Gobernuak ba al du agindu hori betetzeko asmorik?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko legeari buruzkoa.*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak apirilaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko lege onetsi berriak zer eragin izanen du Nafarroan?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, COVID-19aren aurka txertatzeko hitzorduak SMS bidez emateari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, COVID-19aren aurka txertatzeko hitzorduak SMS bidez emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren aurkako zenbat eta txerto gehiago izan, Osasun Departamentuak orduan eta ahalmen handiagoa erakutsi beharko du hitzorduak emateko.

Zer erritmorekin ari dira ematen COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko hitzorduak SMS bidez? Nola ari da bermatzen teknologia hori baliatzeko zailtasunak dauzkaten pertsonen hitzordua bermatua izatea?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Next Generation UE funtsei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Next Generation UE funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, 2021eko apirilaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientziarako Ministerioen arteko Batzordeak oraintsu egin du bere bigarren bilera, zeinetan informatu baita Espainiako Gobernuak zer plan taxutu duen Next Generation UE funtsen kudeaketari eta garapenari begira.

Nafarroako Gobernua zer planteamendu defendatzen ari da foru erkidegoak europar funts horietatik ahal den baliabide gehien eskuratu dezan?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela egun batzuk Nafarroako Gobernuak gure erkidegoko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzko iragarpena egin zuen.

Neurri horrek zer ondorio izanen du nafar familientzat?

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, Kontuen Ganberak eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia egindako txostenei buruzkoa, pandemiaren ingurukoa bata eta gardentasun fiskalaren gainera besteak beste.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Kontuen Ganberak eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia egindako txostenei buruzkoa, pandemiaren ingurukoa bata eta gardentasun fiskalaren gainera besteak beste.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2021eko apirilaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Iragan astean bi txostenen berri izan genuen: bata, Kontuen Ganberak pandemiari buruz egina, eta besteak, berriz, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia egindako txostenei buruz egina. Bi txosten horiek erakusten dute Nafarroako Gobernuak arlo horietan egindako kudeaketa ona dela erakunde independenteen ustez, are gehiago pandemia bezalako garai katramilatsu honetan.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak zer balorazio egiten du txosten horien konklusioez eta txostenek erakusten duten gobernu-jardunaz?

Iruñean, 2021eko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, oinarrizko osasun laguntzako langile-beharrizanak konpontze aldera harturiko neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, oinarrizko osasun laguntzako langile-beharrizanak konpontze aldera harturiko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak apirilaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan zailtasunak dauzkagu oraindik ere osasun eskualde oinarrizkoetako lanpostu guztiak betetzen direla bermatzeko, batez ere sakabana-keta handiko landa-eremuetan, non medikuntzako nahiz pediatriako hainbat lanpostu baitaude bete gabe. Ez dira plantillako langile guztiak ordezkatzeko ez oporretan ez aldi baterako ezintasunagatik bajan daudenean. Herritarren portzentaje bat dago medikuntzako langileak esleitu gabe dituen, eta horrek zailagoa egiten ditu zitazioa eta jarraipen egokia.

Gertatutakoa ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Zure departamentuak hartutako neurriek oinarrizko osasun laguntzako langile-beharrizanak konpontzea lortu dutela uste al duzu?

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planari eta I+G+b arloko aholku kontseiluari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planari eta I+G+b arloko aholku kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari María Solana Arana andreak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak apirilaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da 15/2018 Foru Legeak jasotzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planaren taxutzea eta, zehazki, nahitaez izendatu beharreko I+G+b arloko aholku kontseiluaren osaketa (izan ere, bere eginkizunetako bat da planerako gomendioak egitea)?

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, alarma egoera maiatzaren 9an bukatu ostean hartuko diren neurriei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, alarma egoera maiatzaren 9an bukatu ostean hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zure gobernuak zer neurri hartuko ditu eta zer jarrera hartuko du, Sánchez jaunak iragarri ostean alarma egoera maiatzaren 9an bukatuko dela?

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, euskarazko zerbitzu telematikoei buruzkoa.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, euskarazko zerbitzu telematiko-

ei buruzkoa. Galdera 2020ko abenduaren 18ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00422).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 114 sendagile-lanposturen deialdiei buruzkoa.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko 114 sendagile-lanposturen deial-

diei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00094).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias